

<b>Esperimentazioa</b> <b>Kimikan I</b>	<b>9. Praktika</b> <b>Anhidrido karbonikoaren lortzea.</b>	<b>E.U.P./U.E.P.</b> <b>Donostia</b>
--	---	---

**Materiala**

Kitasatoa  
Dekantazio-inbutua  
Prezipitatu-ontziak


**Erreaktiboak**

$\text{Na}_2\text{CO}_3$   
HCl  
 $\text{Ba}(\text{OH})_2$   
Metilo-laranja indikatzailea

**Alde esperimentalak**

Muntaia ondorengo moduan egiten da: Kitasatoari zulo bat duen kautxuzko tapoi bat jartzen zaio eta ondoren dekantazio-inbutua akoplatzen zaio. Kitasatoaren saihets-irteerari tolesturiko hodi bat konektatzen zaio. Kitasatoan 3 g  $\text{Na}_2\text{CO}_3$  jarriko dugu, eta dekantazio-inbutuan HCl komertziala. Dekantazio-inbutuaren giltza irekitzen da eta tantaka HCl,  $\text{Na}_2\text{CO}_3$ -rekin erreakziona dezan erortzen utziko dugu.

Eratzen den  $\text{CO}_2$  jarraian hiru prezipitatu-ontzitan jasoko dugu. Lehenengoa hutsa egongo da, bigarrenak barita-ura,  $\text{Ba}(\text{OH})_2$ , edukiko du, eta hirugarrenak ura eta metilo-laranja indikatzailearen tanta batzuk.



**GALDERAK**

- 1.- Muntaiaren eskema bat irudikatu
- 2.- Idatzi gertatzen diren erreakzioak.
- 3.- Ze gertatzen da  $\text{CO}_2$  gasa duen prezipitatu-ontzian pizturiko pospolo bat sartzean? Zergatik?

<b>Esperimentazioa Kimikan I</b>	<b>9. Praktika Anhidrido karbonikoaren lortzea.</b>	<b>E.U.P./U.E.P. Donostia</b>
<p>4.- Zergatik uhertzen da barita-ura, <math>\text{Ba}(\text{OH})_2</math>, berarengan <math>\text{CO}_2</math> gasa burbuileztatzen denean? Ze konposatu eratzen da?</p> <p>5.- Zergatik kolorez aldatzen da <math>\text{H}_2\text{O}</math> eta metilo-laranja indikatzailea duen disoluzioa <math>\text{CO}_2</math> burbuileztatzen denean?</p> <p>6.- Nola konproba dezakegu <math>\text{CO}_2</math> gasa airea baino dentsuagoa den ala ez?</p> <p>7.- Kalkula itzazu 20 litro <math>\text{CO}_2</math>, baldintza normaletan neurtuta, eratzeko behar diren <math>\text{Na}_2\text{CO}_3</math> eta <math>\text{HCl}</math> kontzentratuen kantitateak. Datuak: <math>\text{HCl}</math> kontzentratuaren dentsitatea 1,19 g/mL eta purutasuna %35. Pisu atomikoak: C = 12; O = 16; Na = 23; Cl = 35,5; H = 1</p>		